

## Egunero zerbait egingo bagenu

**Miren Azkarate  
Badiola**

Impresioa dut egunero dela “zerbaiten eguna” egutegian, betiere santuen errespetuarekin, amen. Badira batzuk, honengatik edo harengatik, entzute-tsuagoak edo gertukoagoak ditugunak, bakoitzak bereak. Ondo deritzot egun seinalatu hauek existitzeari, baina zer nahi duzue esatea, egun bakarrarekin eta gainontzeko 364tan ezer ez egitearekin, gauza gutxi lortuko ditugun susmoa dut.

Horrela, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Egunean, bere senar ohiaren eskutik biolentzia hau pairatu zuen emakumeak, haren alabak eta bi bilobek ez lukete etxegabetze bat

bizi beharko. Edo abenduaren 1ean, Hiesaren aurkako Egunean, urte asko dituen eta zeharo ahaztuta dugun beste pandemia honi ikerketarako baliabide gehiago eskainiko balitzaizkio, behingoz sendatzeko aukera izango lukete eritasun hau dutenek. Eta zer esan abenduaren 3ari buruz! Euskararen Eguna. Gure agintari guztiak poz-pez abesten eta gure hizkuntza laudoriotzen ahoa betetzen duten egun hori! Gero, Nafarroan EITB 3 ikusiko dela eta asaldatuta daude eta Iparraldean baxoa euskaraz egiteko eskubidea ez duten ikasleen kexuen oihartzunarekin entzungor egiten dute! A! Baina, noski, bi

lurralde hauetan euskara ez da ofiziala. Jakina! Tira, EAEn bada eta ez gaude hobeto, administrazio publikoko lan deialdian euskara ez da beharrezkoa, inposizioa omen, gainera. Azkenik, adibide gisa, atzoko eguna, abenduak 10, Giza Eskubideen Eguna, bizitza duin baten alde Bidasoa ibaia zubitik zein igerian gurutzatzen duten lagunei galdegin non dauden eskubide horiek eta azaldu iezaiezu zertan oinarritzen den ospakizun hau.

Egunero egin dezagun zerbait, edo bestela “governuz barneko erakundeen” partetik “indarkeriaren babeserako eguna” izaten jarraituko du egunero. •

## Begirada iheskorrak

**Antton Izagirre**

Gure egutegian markatuak ditugun egunak datoz. Ziklo aldaketa nabarmenduko dute batzuek, neguko solstizioa. Ikuspegi erlijiosoa edo magikoa izango dute beste batzuentzat. Urtearen amaiera eta asmo berriak irudikatzeko garaia da askorentzat. Edozein kasutan, balantzeak egiteko erabiltzen ditugun egunak ditugu begi bistan.

Elkarte, enpresa eta erakundeek urteko balantze ekonomikoak egin eta aro berrirako proiektu, asmo eta ekimen berriak aurreikusiko dituzte. Irabaziak galeren gaintetik jarri izanak aurrera begirako ikuspegi baikorra eskainiko die. Galerekin ez ixtea. Kasurik okerrean oreka bilatu nahi izango dute. Ur-

tea gutxienez zerotik hastea. Oreka izango da jomuga. Modu batean edo bestean kontuak orekatu egin beharko dituzte. Oreka lortzea, nolako buruhaustea.

Gutako bakoitzak ere, gizabanako modura, izaten dugu urtaro honetan ziklo aldaketari begira jarri eta balantze pertsonalak egiteko joera. Kasu horretan ez dugu formula matematikorik kontuak ixteko. Kontua beste bat baita: nondik begiratzen diozu bizitzari? Zein da zure begirada?

Konturatzen gara begirada erabat aldatorra izan daitekeela. Atzo zenuenak ez dizula gaurko balio edo agian bihar-ko aldatuko zaizula. Atzera eta aurrerako begiradak izaten ditugu alderagai

orainari begiratzeko, oreka lortu ote dugun galdetzeko.

Konturatzen gara, atzoko gogoeten kausa eta burutazioen zama zein arina izan daitekeen, egun batetik bestera bizitzari begiratzeko ikuspegia gertakari berri batek astindu, zapuztu, mudarazten digunean. Alderantziz ere bai beste askorentzat, aurrez bizi izan duten egoera zail horri aurre egin diotenean.

Erlatiboak dira gure begiradak, pitzatuak zenbaitetan, bizi eta gardenak askotan, iheskorrek edonola ere.

Zein da zure begirada? Nondik begiratzen diozu bizitzari? Pentsatu nahi dut gure begirada ez dagoela zoriaren edo patuaren esku eta hautatuko dugula aurrean dugunari nola begiratu. •